



Turismo-azturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa, 2024 AZKEN KONTSIDERAZIOAK

Euskadiko herritarren bidaiia-azturak

Euskal gizarteak, oro har, bidaiia edo joan-etorri batek ematen duen esperientzia bizitzeko interes handia duela adierazten du, beren aisialdiko aktibo garrantzitsua delarik. Ez alferrik, kontsultatutako pertsonen % 68,5ak beren ohiko etxebizitzatik kanpo gutxienez astebeteko iraupeneko egonaldia egitea dakarren bidaiia bat egiten du urtean behin bederen. Zehazkiago, % 36,1ak halako irteerak egiten ditu urtean zehar hainbat aldiz.

Halaber, Euskadiko herritarren % 51,9k adierazten duenez, urtean gutxienez joan-etorri bat planifikatzen du. Joan-etorritzat ulertzen dugu bidaiia laburragoa, alojamendu batean gau bat edo bi igarotzea dakarrena, edo data berezietan edo zubietan egiten dena. Halaber, gehiengoak, % 57,3ak, aisialdian egun bateko txangoak egiten dituela adierazten du beste leku batzuk ezagutu edo jarduerak egiteko.

Atal honetan, bigarren egoitza bat izatea, gero eta hedatuagoak dauden alternatibak kontuan izanik (esate baterako, bungalowak edo leku finko batean dauden karabanak), eragin nabaria du Euskadiko herritarren oporraldietan eta bidaietan. % 29,9k dioenez, alternatiba hori du eta bere oporraldi eta joan-etorrietan erabili egiten du. Dena den, kasu gehienetan, horrek ez du esanahi beste jomuga batzuetara bidaiatzen ez denik.

Azken kontsiderazioak

Euskaldunen artean aisialdian bidaiatzeko azturak honako ezaugarri orokor hauek ditu:

- Euskadiko herritarrek familian (% 36,8) edo bikotearekin (% 36,3) bidaiatzen dute gehienbat. Dena den, pertsonaren bizitzako unearen baitan dago hori.
- Bidaiatzen duten hamar euskaldunetik zazpi gogoko dute beren irteera eta joan-etorriak antolatzea (% 73,4). % 9,0a da bidaia-agentzia baten laguntzaren bila jotzen dutenak.
- Bidaiatzen dutenek, nagusiki, bi iturri erabiltzen dituzte jomugari buruzko informazioa bilatzeko; alde batetik, hautatutako lekuaren webguneak (% 49,7), eta beren esperientzia helarazi eta zer ikusi, egin edota non ostatu hartu edo jan gomendatzen duten lagun eta senideen aholkuak (% 45,0).

Azken kontsiderazioak

2024ko Aste Santua

2024. urte honetako Aste Santuak honako argazki hau uzten digu. Hamar pertsonatik lauk gaua kanpoan ematea dakarren irteera edo bidaiaren bat egin du. Gehienek (% 73,6) Espainiako geografiako lekuren bat hautatu dute, nagusiki gure lurraldearen mugakide diren probintzia edo Autonomia Erkidegoak, esate baterako, Kantabria, Burgos eta Errioxa, non bigarren egoitzak ugariak baitira. Baina gure mugetatik harago, nabarmentzekoak dira beste zenbait jomuga, esate baterako, Alacant, Asturias, Huesca edo Malaga.

Bestalde, % 11,6 atzerrira mugitu da, Europako herrialde batera nagusiki, eta Portugal, Erresuma Batuak eta Italia dira gehien bisitatu direnak. Gaineratu behar da, era berean, % 7,3k Frantziako punturen bat hautatu duela. Bestalde, % 7,5ak Euskadin eman ditu bere oporrak.

Aste Santua ere txangoak egiteko garaia izan da, % 20,7ak adierazten duen eran. Lekuak ezagutu, osteratxoak egin eta paisaiarekin gozatzeko (% 54,7), naturan jarduerak egiteko (% 33,4) edo upategi, sagardotegi edo jatetxeetara joanez, gastronomiarekin gozatzeko (% 26,4) denbora eskaintzen duten txangoak.

Azken kontsiderazioak

Udari begirako proiektzioa

Inkesta uda atarian eginda, euskaldunek, uda sasoian bidaiatzeari begira, irten egingo zirela zioten gehiengoek, % 63,0k bidaiaren bat egitea litekeena zela adierazten baitzuen. Esperientzia horrekin gozatzea gertagarri ez zela uste zutenen artean, aurrekontuekin lotutako arrazoiak ematen dituzte gehienbat eragozpen nagusi modura.

Udako bidaia garrantzitsu edo luzeenak, kasu gehienetan, batez beste 11 gaueko egonaldi baterako alojamendua izatea dakar. Jomuga nagusia Espainiako geografia da beste behin. Dena den, % 15,5ak Europako beste herrialde batzuetara joateko asmoa zuen, eta % 8,0k nazioarteko beste jomuga batzuetara.

Kostaldeko turismoa da euskaldunen bidaia mota kuttuna uda sasoian. Bi pertsonatik batek (% 49,7) egiten du alternatiba horren alde, gainerako alternatibetatik distantzia handira. Bestalde, % 24,8k nahiago du hiriak ezagutzera bideratutako bidaia egitea.

Bestalde, % 19,3k interesgune ezberdinen arteko ibilbideak egitearen alde egiten du, % 18,0k natura eta abenturaz gozatzeko bidaiak egitearen alde, % 14,9k kultura eta ekitaldiekin lotutako bidaien alde, eta % 11,2k landa-turismoaren alde.

Azken kontsiderazioak

Euskadi jomuga gisa

Egindako zundaketak herritarrek beren bidaiak eta joan-etorrietarako jomuga gisa Euskadirekin duten interesa ezagutzeko ahalbidetzen du. Horri dagokionez, herritarrek Euskadi aukeratzeko motibazio nagusiek bertako natura-eremuekin (% 56) eta euskal kostaldea, bere ingurune eta hondartzak ezagutzarekin (% 54) dute zerikusia. Bigarren mailan, gastronomia (% 47) eta ondarea, artea eta kultura ere (% 43) aurkitzen ditugu.

Dagoeneko aipatu dugun eran, aurtengo Aste Santuan irteeraren bat egin dutenen artean, % 7,5ak Euskadi aukeratu du. Funtsean, Euskal Kostaldeko lekuren batera egindako irteerak izan dira (% 48,1), eta zertxobait gutxiago, barnealdeko jomuga turistikoa osatzen duten udalerrietara (% 23,6). Donostiako hiriak ere barneko merkatuaren interesa piztu du.

Halaber, ikusi ahal izan dugunez, Euskadin barnako bidaietan izandako esperientziarekin adierazitako asebetetzea bereziki positiboa izan da. Aste Santuan Euskadin barna bidaiatu duten pertsonen alojamenduaren kalitatea, zerbitzuen tratua eta eskaintza gastronomikoa azpimarratzen dituzte.

Azken kontsiderazioak

Udako bidaiari begira, bidaiatzeko asmoa duten pertsonen artetik, % 4,3k aukeratzen du Euskadi. Beste jomuga batzuen alde egiten dutenen artean, gehiengoak beste ingurune, leku eta kultura batzuk ezagutzeko asmoa du. Haatik, itxura batean, eguraldiak ere badu badu bere garrantzia udan Euskadiz aparteko alternatiba bat hautatzeko erabakian, bilatzen den bidaia mota nagusia kontuan izanik, kostaldeko turismoa.

Haatik, urtea amaitzeko geratzen den denboran, populazioaren % 27,1ak Euskadin barnako irteera edo joan-etorriren bat egitea aurreikusten du, kostaldearekin, naturarekin eta bertako gastronomiarekin gozatzeko.

Azken kontsiderazioak

Turismo hartzailearen aurrean gizarteak duen pertzepzioa

Inkestak, era berean, turismo hartzailearen testuinguruan, Euskadiren gainean Euskadiko herritarrek duten pertzepzioa zein den jakitea ahalbidetu du. Horri dagokionez, emaitzek fenomeno turistikoaren dimentsio batzuen inguruko argi-printzak eskaintzen ditu, gizarteak hori nola hautematen duen jakiteko aukera emanez.

Alde batetik, ia herritar guztiek, kontsultatutako hamar pertsonatik bederatzik, uste du turismoaren sektorea ekonomiaren eta enpleguaren garapenerako motorra dela. Baieztapen hori irmotasun handiagoz adierazten du % 51,3k, oso garrantzitsua dela irizten baitu. Ideia horren inguruan ez dago desadostasunik, ezta bizilekuaren edo bizitegi-eremu geografikoaren arabera ere.

Halaber, gehiengoaren arabera (% 53,0), turismoak eragin positiboa du bere egunerokotasunean. % 27,9k ez du uste turismoak eraginik duenik bere egunerokotasunean, eta “ez positiboa, ez negatiboa” adierazten du. Eta % 11,9k bere egunerokotasunean eragin negatiboa duela dio.

Pertzepzio horretan, norbera bizi den udalerrriaren jomuga turistikoaren izaerak zerikusi handia du, eta asegabetasun maila handiagoak aurki daitezke Donostiaren moduko turismo-ingurune heldu eta sendotu batean. Hemen, pertsona egoiliarren % 36,3k bisitari eta turisten presentziak bere egunerokotasunean eragin negatiboa duela irizten du.

Azken kontsiderazioak

Euskadiko turismo-ereduari dagokionez, Euskadiko herritarren % 66,7k uste du eredu arduratsu eta jasangarria dugula. Zehazki, % 30,8k irmoki baieztatzen du hori, eta % 35,9k zati batean edo ñabardurekin baieztatzen du.

Haatik, hamar euskaldunetik bik (% 21,1)ez du iritzi zehatzik Euskadiko turismo-ereduari buruz, eta horrek ere fenomeno, bizilekuaren testuinguruaren arabera, ezberdin bizitzen dela adierazten du.

Baina adierazle horietatik harago, datuen historikoarekin alderaketa eginez agerian geratzen denez, Euskadiren gainean, jomuga turistiko gisa, hautematen den jasangarritasunari buruz nolabaiteko eztabaida dago gizartean, sektoreko zenbakiek gora egin eta gure kaleetan bisitari eta turisten presentzia areagotu egiten den bitartean. Alderdi horrek planteatutako alderdien inguruan herritarrek egindako balorazioetan ñabardura gehiago sartzeko premia dakar.

Azken kontsiderazioak

We Are Testers plataformak egindako inkesta, Turismoaren Euskal Agentziak (Basquetour) eskatuta